



AZTERKETAK | 56

2026ko OTSAILA

Pobreziatik pauso batera

ELAren proposamenak
pobreziari eta bazterketa
sozialari aurre egiteko



MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA

Azterketak 56
Azterketa Bulegoak eginda
@mrafundazioa
www.mrafundazioa.eus
Bilbo. 2026ko otsaila

Aurkibidea

1. Sarrera	1
2. Aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da.....	2
3. Pobreziaren diagnostikoa Hego Euskal Herrian	5
3.1. Zenbat pertsonak dute bizitza duina izateko zailtasuna Hego Euskal Herrian? ...	5
3.2. Pobreziaren aurpegiak.....	6
3.3. Enpleguak ez du bizitza duina bermatzen	8
3.4. Etxebizitza: pobrezia (edo aberastasuna) sortzen duen ondasuna.....	10
3.5. Diru sarrera txikiak dituzten pertsonen erosketa saskiko aldaketak	11
4. Desberdintasuna eta zerbitzu publikoetarako sarbidea	12
4.1. Pertsona pobreak gehiago gaixotzen dira, osasun arreta okerragoa dute eta arinago hiltzen dira	12
4.2. Zaintza profesionalak ez dira errenta baxuentzat	13
4.3. Bazterketaren eragina hezkuntzan	14
5. Nahikoak al dira prestazio sozialak pobreziatik irtetzeko?	15
5.1. Zenbatekoen murrizketak	15
5.2. Prestazio sozialak EAEan.....	16
5.3. Prestazio sozialak Nafarroan.....	18
6. Ondorioak.....	19
6.1. Aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da	19
6.2. Pobreziaren hazkundea eta kronifikatzea.....	19
6.3. Pobrezia eta bazterketa sozialaren aurpegiak: pertsona migratuak, emakumeak eta gazteak.....	19
6.4. Pobrezia hilabete bukaerara ez iritea baino gehiago da: etxebizitza, osasuna, zaintzak, hezkuntza.....	20
6.5. DSB eta Errenta Bermatua ez dira nahikoak	20
7. Gizartearen kohesiorako elementuak. ELAren proposamenak.....	21

1. SARRERA

Pobrezia gero eta kronifikatuagoa eta gero eta dimentsio anitzagoak dituen fenomeno da. Ezin da diru sarreren gabezia hutsera mugatu, pertsonen bizitza baldintzatzen duten faktore estruktural askori eragiten dio. Lan prekarietatea, etxebizitza duin baterako sarbide zailtasunak, gabezia materialak, osasun arazoak edo eskubide sozialak baliatzeko eta komunitatean erabat parte hartzeko mugak errealtate horren parte dira.

Faktore horietako asko sistemikoak dira. Aldatzen ari dira testuinguru demografikoa, enpleguaren izaera, familia ereduak eta etxebizitza eredua, eta, aldi berean, sakoneko beste krisi batzuk irauten dute, hala nola krisi ekologikoa edo zaintzena. Horrek guztiak desberdintasuna sortzen duen egitura soziala eratzen du, ikuspegi ekonomiko hutsetik harago.

Lanaren prekarizazioa elementu zentraletakoa bat da. Enpleguak jada ez du egonkortasuna eta segurtasuna bermatzen: langile pobreak daude, eta baita diru sarrerak izanda ere hilabete amaierara iristen ez direnak. Egoera horri etxebizitzaren krisia gehitzen zaio, bizileku egoki baterako sarbidea garestitu eta zaugarritasuna areagotzen duelako. Ondorioz, pertsona askok bazterketa ekonomikoa ez ezik, bazterketa digitala, soziala, politikoa, heziketakoa eta sanitarioa ere pairatzen dute.

Pobrezia, gainera, isolatzailea eta segregatzailea da. Denboran irauten duten dinamikak erreproduzitzen dira, pobreziaren erreprodukzioa eraginez. Pertsonen integrazioa, neurri handi batean, abiapuntuko egoeraren araberakoa da, ondorengo merezimendu edo ahaleginen gainetik, eta horrek desberdintasun estrukturalak sendotzen ditu.

Genero ikuspegitik, pobreziak gehiago eragiten die emakumeei, bereziki emakume migratzaileei. Emakumeak bereziki kaltetuak dira zaintza lanen gainkargagatik, bateragarritasun zailtasunengatik eta lan prekario edo informalekiko esposizio handiagoagatik. Migrazioa, mendekotasuna eta desberdintasun sozialak ere elkartzen dira, eta horrek ikuspegi ekofeminista txertatzeko beharra indartzen du, zaintzak eta bizitzaren jasagarritasuna erdigunean jarritz.

Errealtate konplexu horren aurrean, politika publikoak askotan ez dira nahikoak. Sarri ez dute arazoa modu integralean lantzen, baizik eta erantzun partzialetara edo larrialdikoetara mugatzen dira. Horrek herritarrak oinarritzko beharrak beren kabuz aurre egitera behartzen ditu. Beharrezkoa da komuna indartzea eta politika estrukturalak garatzea: behar adinako gizarte prestaziok, kalitatezko zerbitzu publikoak, etxebizitzarako sarbidea, fiskalitate bidezkoagoa eta pentsio egokiak barne.

Azken urteotan langile klasearen pobretze prozesua bizi dugu. Inflazio maila altuak, erosketa saskiaren eta etxebizitzaren garestitzeak eta soldaten geldialdiak gero eta pertsona gehiagori hilaren amaierara iristea zaildu diete. Baliteke hitzaren zentzu zorrotzean pertsona horiek pobretzat ez hartzea, baina ustekabeko edozein gasturen aurrean pobrezia edo gizarte bazterketa arriskuan eror daitezke. Hau da, pobrezia atarian dauden pertsonak dira. Bien bitartean, enpresek gero eta etekin handiagoak pilatzen dituzte, aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa eraginez.

Gizarte bazterketaren kontzeptuak pobreziarekiko begirada zabaltzen du. Ez da soilik diru sarrera baxuen kontua, baizik eta bizitzako hainbat esparrutan desabantailen metaketa. Pobrezia eta gizarte bazterketa elkarri estuki lotutako fenomenoak dira, gero eta pertsona gehiagori eragiten dietenak.

Dokumentu honetarako, FOESSA Fundazioaren ikerketak hartu dira erreferentziazat, bereziki Espainiako Estatuan pobrezia aztertzerakoan duten ikuspegi aniztasun eta zorroztasunagatik. Haien ikuspegiak integrazio eta bazterketa prozesuetan jartzen du arreta, bazterketa larriko egoerak ez ezik, integrazio prekarioan bizi diren sektore zabalak ere identifikatuz, hau da, edozein aldaketa ekonomiko, laboral edo familiarrek okertzeko arrisku handia duten egoerak.


2. ABERASTASUNAREN BANAKETA GERO ETA BIDEGABEAGOA DA

Ez dago zalantzarik aberastasuna gero eta modu bidegabeagoan banatzen dela. Olatu erreakzio-narioaren helburuetako bat horixe da: baliabideak gero eta gehiago pilatzea gehien dutenen eskuetan, beharrezkoa bada legedia saihestuz eta desberdintasun sozialak handituz. World Inequality Report txostenaren arabera, aberatsen eta pobreen arteko aldea muturreko mugara iristen ari da. Txostenak ondorioztatzen du 60.000 pertsona baino gutxiagok, hau da, munduko biztanleriaren %0,001ek, gizateriaren erdirik pobreenak baino hiru aldiz aberastasun gehiago kontrolatzen duela. Diru sarreraren arloan ere antzekoa gertatzen da: diru sarrera handienak dituzten munduko biztanleen %10k gainerako %90k baino gehiago irabazten du, eta biztanleriaren erdirik pobreenak munduko diru sarrera guztien %10 baino gutxiago jasotzen du. Eskualde ia guztietan, %1 aberatsena %90 pobreena baino aberatsagoa da, eta desberdintasunak azkar handitzen ari dira mundu osoan. Gainera, pilaketa hori ez da iraunkorra bakarrik, gero eta handiagoa eta azkarragoa izaten ari da.

Oxfamen azken txostenak erakusten duenez, 2025ean mundu osoko milimilioidunen aberastasun bateratua %16 baino gehiago hazi da, eta 2020tik hona %81 handitu da. Donald Trump 2024ko azaroan presidente izendatu zutenetik, milimilioidunen fortuna aurreko bost urteetako batez bestekoa baino hiru aldiz azkarrago hazi da. Joera horrek ez die AEBetako aberatsei bakarrik eragiten, baita mundu osoko gainerako aberatsei ere.

Pilaketa handiago hori ezin da ulertu botere judizial edo legegilearen ahultzerik gabe, eskubide zibilen murrizketarik gabe edo praktika autoritarioen normalizaziorik gabe. Botere ekonomikoaren eta politikoaren arteko loturak oligarkia berri bat sortu du, hamarkada bat baino gehiago daramana gero eta aberastasun handiagoa metatzen. Eta hori gertatzen den bitartean, munduan gero eta pertsona gehiagok pairatzen du pobrezia.

Aberastasunaren bilakaera milmilioidunen artean eta elikadura segurtasunik gabeko pertsonen kopuruaren aldean.




Iturria: Intermón Oxfam

Joera global horiek gure errealitatean ere eragina dute. Aurretik egindako hainbat txostenetan¹ langile klasearen pobretze prozesua aztertu izan dugu: inflazio handia, soldaten izoztea, erosahalmenaren galera... eta hori guztia enpresek errekorreko irabaziak lortzen ari diren bitartean.

Aberastasunari eta haren banaketa bidegabeari buruz informazio publikoa gutxi izan arren, badira errenta banaketako desberdintasunak aztertzeke aukera ematen duten joera makroekonomikoak. Horietako bat errenten araberako BPGa da. Nahiz eta modu partzialen, adierazle horrek ekonomia batean sortzen den aberastasuna nola banatzen den erakusten du. Datuak oso argiak dira: aberastasuna modu desorekatuan banatzen da: Hego Euskal Herrian lan errentek BPGaren ia 2,5 puntu galdu dituzte, eta enpresen ustiapeneko soberakin gordina 4,8 puntu handitu da. Estatuko errentek ere 2,2 puntu galdu dituzte.

HEHko errenten araberako BPGaren bilakaera (2000-2023)




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina INEren datuekin

1 Egoeraren Azterketa 145, 146 eta 147. ELA sindikatua eta Manu Robles-Arangiz Fundazioa

Txosten batzuek² BPG per capita-ren (pertsonako sortzen den aberastasuna) eta pobrezia-
arteko alderantzizko harremana nabarmentzen dute: zenbat eta aberastasun gehiago sortu,
orduan eta pobrezia txikiagoa izan ohi da. EAEko eta Nafarroako BPG per capita Espainiako Esta-
tuko altuenetakoak dira, eta horregatik pobrezia tasak txikiagoak dira.

Pobrezia-aren eta BPGaren arteko erlazioa 2023



Iturria: EAPN

Hala ere, Pobrezia-aren Aurkako Europako Sareak ohartarazten du EAEn eta Nafarroan, pobrezia-
jende gutxiagori eragiten dion arren, intentsitate handikoa dela: pobrezia arriskuan dauden per-
tsonen %45 baino gehiago hilean 644 euro baino gutxiagorekin bizi dira.

Datuok aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa erakusten dute, eta horrek handi-
tzen ari den arrakala sortzen du gehien dutenen eta gutxien dutenen artean. Ekonomiak hazten
jarraitzen du, baina langile klaseak ez du hazkunde horren onurarik jasotzen. Estatuko batez bes-
tekoarekin alderatuta, pobrezia txikiagoa da HEHn, hala ere, joera hauek jarraituz gero, gero eta
pertsona gehiagok izango ditu bizitza duina garatzeko zailtasunak.

3. POBREZIAREN DIAGNOSTIKOA HEGO EUSKAL HERRIAN

Ekonomia hazten ari den arren, hazkunde hori ez da pertsonen eguneroko bizitzara iristen. Atal honetan, hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituzten pertsonen argazki orokorra egingo dugu, batez ere FOESSAk EAeri eta Nafarroari buruz eskaintzen dizkigun datuetan oinarrituta.

3.1. Zenbat pertsonek dute bizitza duina izateko zailtasuna Hego Euskal Herrian?

FOESSA 2025 txostenaren arabera, EAEk Estatuan integrazio mailarik altuenak ditu, baina prekaritate eremuaren zabaltzea ere antzematen da.

Gizarte bazterketari dagokionez, bazterketa tasa orokorra %11,8koa da (gutxi gorabehera 259.000 pertsona). Bazterketa moderatuak biztanleriaren %7,9ri eragiten dio, eta bazterketa larriak %3,8ri (84.000 pertsona inguru). Gizarte bazterketaz ari garenean, lan egoera ezegonkorra edo lanik ez duten pertsonen, oinarritzko zerbitzuetara sartzeko zailtasunak dituztenez, etxebizitzarako sarbide arazoak dituztenez edo bizitza sozialean parte hartzeko zailtasunak dituztenez ari gara.

Hala ere, euskal biztanleriaren %34,7 integrazio prekarioan dago. Pertsona hauek ez daude bazterketa egoeran, baina lan prekarioak eta soldata baxuak dituzte, eta edozein ustekabeko gasturen aurrean gizarte bazterketara erortzeko arriskuan daude. Gainera, talde hori nabarmen hazi da 2018tik hona, orduan %27 baitzen.

Pobrezia eta gizarte bazterketaren artean korrelazio handia dago: EAEn bazterketa egoeran dauden pertsonen %77 pobrezia egoeran daude.

Nafarroari dagokionez, gizarte bazterketaren tasa orokorra jaitsi egin da 2018tik, baina bazterketa larrian dagoen jendearen tasa mantendu egin da eta pobrezia etengabe hazi da.


Gizarte bazterketaren tasa orokorra %13,2koa da (88.000 pertsona inguru), bazterketa moderatuak biztanleriaren %7ri eragiten dio, eta larriak %6,2ri (41.000 pertsona inguru). Datu horrek ez du hobera egin 2018tik, eta izaera estrukturala erakusten du.

Integrazio prekarioari dagokionez, nafar biztanleen %36,2 egoera horretan dago. EAEn bezala, talde hau handitu egin da 2018tik (%31,3koa zen), integrazio osoaren atzerakadaren ondorioz.

Pobreziak hitz egiterakoan, Pobreziarekin Borrokatzeko Europako Sarearen (EAPN) arabera, pobrezia arriskua %14,2koa da, eta pobrezia larria nabarmen hazi da azken urtetan, 2024an %7,9ra iritsita (2018ko %2,6aren aldean). Pobrezia eta gizarte bazterketaren arteko lotura oso estua da: Nafarroan baztertuta dauden pertsonen %82,1ek pobrezia monetarioa ere pairatzen du.

Gizarte-bazterketaren gaineko erradiografia (biztanleria osoaren gaineko %-a)

p. 6.



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda Foessatik

Bi lurraldeek Espainiako Estatuko batez bestekoa baino egoera hobea erakusten dute, baina "bi abiadurako gizartearen" fenomenoak partekatzen dute: enpleguari eta errenta ertainei buruzko datu orokorrak positiboak diren arren, bazterketa larria kontsolidatu da, eta integrazio ahul edo prekarioan bizi diren familien kopurua handitzen ari da, edozein krisi ekonomiko edo osasun eta etxebizitza arazoren aurrean oso kalteberak direnak.

3.2. Pobreziaren aurpegiak

Pobrezia edo gizarte bazterketak ez du eragin bera gizarteko pertsona guztiengan. Badira pertsona batzuk beste batzuk baino egoera kalteberagoan jartzen dituzten faktoreak. Zalantzarik gabe, pertsonen jatorria da bazterketa-arriskua gehien baldintzatzen duen elementua, bai EAEn, bai Nafarroan. Hau da, migratutako pertsonen bazterketa-arrisku handiagoa dute.

Pertsonen jatorria da faktore nagusia

EAEn, atzerritarren artean bazterketa (%40,7) bertakoena baino bost aldiz handiagoa da. Horrek esan nahi du bazterketa egoeran dauden pertsonen %64,2 jatorri atzerritarreko norbaitek buru duen etxeetan ematen dela. Nafarroan, atzerritar nazionalitatea duten pertsonen bazterketa tasak (%40,2) bertakoena baino 4,5 aldiz handiagoak dira, eta baztertuen %64,5 dira, biztanleria gutxiengoa izan arren.

Espozizio handiago hori azaltzen duten faktoreak ugariak dira: lan prekarietate handiagoa, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, egoera administratibo irregularrean egoteagatik gizarte prestazio edo zerbitzu publikoetara sartzeko oztopoak, edo bizitza politiko eta sozialean parte hartzeko trabak, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Azpimarratzekoa da jatorri atzerritarreko emakumeek pobrezia arrisku handiagoa dutela, lan okupazio maila txikiagoa dutelako eta lanen prekarizazio handiagoagatik.

Bazterketa arriskua handiagoa da gazteen artean

Datuen arabera, belaunaldi arrakala nabarmena dago gizarte bazterketan. EAEn, 18 urtetik beherakoen bazterketa tasa %19,9koa da, 65 urtetik gorakoena %5,5. Nafarroan antzekoa da: 18 urtetik beherakoen tasa %23,4 da, eta 65 urtetik gorakoena %5,4. Alde horrek haur eta nerabeen kalteberatasun berezia erakusten du.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, bazterketa tasa %9,2koa da EAEn eta %11,1 Nafarroan. Langabezia da kalteberatasun faktore nagusietako bat, %20 inguruko tasarekin. Etxebizitza eskuratzeko zailtasunek ere arrisku hori handitzen dute.

Gainera, paradoxa esanguratsu bat dago: gaur egungo gazteek, oro har, aurreko belaunaldiek baino baldintza material hobeak dituzten arren, osasun mentaleko arazo gehiago eta ondoez emozional handiagoa pairatzen dute. Egoera hori arrakastarekiko presio sozialarekin, bizi-ziurgabetasunarekin eta sare sozialen eraginarekin lotuta dago.

Generoa desberdintasunerako elementu estrukturala da

Azken urteetan emakumeek hainbat esparrutan integrazio handia izan duten arren, generoak desberdintasun faktore izaten jarraitzen du. EAEn, adibidez, emakumeak buru dituzten etxeek bazterketa tasa handiagoak dituzte (%15,4), gizonen buru dituztenek baino (%10). Nafarroan, gizarte bazterketan ez dago alde handirik sexuaren arabera, baina pobrezia tasa handiagoa da emakumeen artean (%14,8) gizonen artean baino (%13,6).

Alde horiek azaltzen dituen elementu nagusietako bat zaintzen banaketa da. Genero desoreka nabarmena mantentzen da, emakumeek dependentzia egoeran dauden pertsonen eta adingabeen zaintzaren zati handiena bere gain hartzen baitute. Izan ere, seme-alaben zaintzagatik hartutako eszedentzien %87 emakumeek hartzen dituzte, eta beste senideen zaintzagatik hartutakoen %72.

EAPNk baieztatu du lotura zuzena dagoela ordaindu gabeko zaintza lanen eta emakumeen pobrezia edo gizarte bazterketa arrisku handiagoaren artean. Lotura hori azaldu daiteke familia eta zaintza arduren gainkargak praktikan mugatzen dituelako haien aukera ekonomiko eta laboralak.

Testuinguru honetan, emakumeek —bereziki behar soziosanitarioak dituzten familien zaintzaz arduratzen direnek— prekariedade ekonomiko handiagoa pairatzen dute. Beste pertsonak zaintzera bideratzen duten denborak “denbora kreditua” suposatzen du, baina ez da ez diru sarreretan ez gizarte babeserako eskubideetan bihurtzen, eta horrek desabantaila estrukturala metatzen du bizitza osoan zehar.

Desberdintasun horrek lan arloan ere isla argia du: lanaldi partzialaren eta behin-behinekotasunaren maila handiagoak emakumeen diru sarrerak eta egonkortasuna mugatzen ditu. Oro har, datuek erakusten dute emakumeek askoz denbora eta energia gehiago eskaintzen dituztela etxeko ordaindu gabeko zaintzei, etxeko lana eta enplegu ordaindua uztartzen dituen “karga bikoitza” hartuz, eta horrek soldata hobeak dituzten lanpostuetara iristea eta garapen profesionala zailtzen du.

Desberdintasun horren eragina bereziki nabarmena da profil jakin batzuetan: emakumeek buru dituzten guraso bakarreko etxeetan kalteberatasun ekonomikoa handiagoa da, emakume migratuek pobrezia arrisku tasa oso altuak dituzte, lan-esparrura sartzeko oztopoengatik eta babes sare faltagatik, eta 65 urtetik gorako emakumeek, lan ibilbide zatituak eta pentsio baxuak izanik, pobrezia tasa handiagoak dituzte adin bereko gizonek baino. Horrek beste ondorio bat ere badakar: emakumeak baldintza okerragoetan iristen dira zahartzarora, eta horrek kalteberatasun handiagoa sortzen du zaintza jasotzeko garaian.

Emakume pentsiodun asko pobrezia atalasearen azpitik daude

Pentsioak bazterketaren aurkako babes faktore indartsua diren arren, horrek ez du esan nahi pentsiodun askok —batez ere emakumeek— pobrezia saihesten dutenik. EAEn, pentsiodunen arteko bazterketa tasa %4,1ekoa da, eta Nafarroan %6tik beherakoa.

Hala ere, sistemak arrakalak ditu: EAEn, kotizazio pentsioen %11,3 pobrezia larriaren atalasearen azpitik daude³. Alarguntza pentsioei dagokienez —gehien bat emakumeek jasotzen dituztenak—, Nafarroan %21,3 eta EAEn %16,7 pobrezia larriaren azpitik daude.

Desgaitasuna duten pertsonak

Desgaitasuna edo osasun arazo kronikoak dituzten pertsonak ere gizarte bazterketarekin lotuta daude. EAEn zein Nafarroan, desgaitasuna duten pertsonen lan prekariotasunak desabantaila estruktural argia erakusten du desgaitasunik ez dutenen aldean. Jarduera tasari dagokionez, datuek argi erakusten dute kolektibo horren presentzia txikiagoa dela: EAEn desgaitasuna duten pertsonen %45 aktibo daude, eta Nafarroan %38. Aldiz, desgaitasunik ez dutenen jarduera-tasak %78,9 eta %78,2 dira, hurrenez hurren. Gainera, egiten dituzten lanak prekariedade handikoak izan ohi dira.

Langabeziari dagokionez, EAEn %17,6koa da desgaitasuna duten pertsonen langabezia tasa, eta Nafarroan %16,5ekoa, HEHko batez besteko tasa orokorra, aldiz, %7,6koa da. Hau da, desgaitasuna duten pertsonen langabezia tasa bikoitza baino handiagoa da. Gainera, kontuan hartu behar da kolektibo honetako pertsona asko ez daudela Lanbiden edo Lansaren izena emanda.


Lan prekariotasunaz eta diru sarrera txikiagoez gain, pertsona hauek tratamenduetan edo baliabide espezifikoetan gastu gehigarriak egin behar izaten dituzte. Horrek guztiak bazterketa arrisku handiagoan uzten ditu.

3.3. Enpleguak ez du bizitza duina bermatzen

Aurretik ikusi ditugun elementu guztiak ezin dira ulertu jasaten ari garen lan prekariedadearen hedapena kontuan hartu gabe. Kotizatzaileen kopurua inoizko handiena izan arren, pertsona askok ezin dute hilabete amaierara iritsi.

Lan prekariedadearen eta gizarte bazterketaren arteko korrelazioa argia da, eta horregatik emakumeak, pertsona migratuak, gazteak eta desgaitasuna duten pertsonak dira bazterketa arrisku handiena dutenak. Aldi baterako kontratazio handiagoa, lanaldi partziala, lan egiten duten sektoreak eta diru sarrera txikiagoak dira horren adierazle.

Lan-arloko datuak generoa eta jatorria kontuan hartuta



Iturria: EIN

Okupazioari dagokionez, gizon eta emakumeen arteko aldeak pixkanaka orekatu badira ere, oraindik badira alde sektorial garrantzitsuak. INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, emakumeak okupatutako pertsonen %47,6 dira, eta gizonak %52,4. Emakumeen %87,4 zerbitzuen sektorean aritzen dira, eta gizonen kasuan portzentaia hori %59,1era jaisten da. Aitzitik, industriak —normalean soldata altuagoak eskaintzen dituen sektoreak— gizonen %30 biltzen du, eta emakumeen %10 baino ez.

Adinaren arabera, 16 eta 25 urte bitarteko pertsonak nagusiki zerbitzuen sektorean aritzen dira, industrian eta eraikuntzan presentzia txikiarekin. Adina handitzen den heinean, emakumeek zerbitzuetan duten parte hartzea egonkor mantentzen da, eta gizonek industriara jotzen dute gehiago.

Biztanleria migratuari dagokionez, nahiz eta Biztanleria Aktiboaren Inkestak ez duen HEHrako datu xehaturik eskaintzen, beste txosten batzuek⁴ lan prekarietate handiagoa erakusten dute. Migratutako pertsonen %75,5 zerbitzuen sektorean lan egiten du, genero arrakala handiarekin: gizon migratuen %56,5 sektore horretan aritzen dira, eta emakume migratuen kasuan portzentaia %95,4ra iristen da, batez ere kualifikazio baxuko lanetan, hala nola ostalaritzan, salmentetan eta zerbitzu pertsonaletan.

Horregatik guztiagatik, EAEn eta Nafarroan egindako FOESSA txostenek ohartarazten dute enplegua bere integrazio gaitasuna galtzen ari dela. Lanaldi osoko, kontratu mugagabeko eta soldata nahikoa duten enpleguak gutxitzen ari dira, malgutasun eta prekarietate handiagoko enpleguen mesedetan. Izan ere, EAEn gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen %50,8 bizi dira etxeko sostengatzaile nagusiak lana duen etxeetan, Nafarroan, %44,2.

4 88. panoramika: EAEko atzeritar jatorriko eta lan-eremuko biztanleak. 2023ko maiatza


3.4. Etxebizitza: pobrezia (edo aberastasuna) sortzen duen ondasuna

Aurretik adierazi dugun bezala, diru sarreren gabezia ez da pobrezia egoerak azaltzen dituen faktore bakarra. Badira beste elementu batzuk —etxebizitza kasu—, aurrekoarekin lotura izan dezaketen arren, gizartean arrakala sortzen ari direnak: etxebizitza erosi edo alokatzeko modua dutenen eta hori egin ezin dutenen artean.

Espainiako Bankuaren datuen arabera⁵, etxebizitzaren jabetza gero eta gehiago pertsona aberatsenen esku dago.

Ondorengo grafikoak erakusten duen bezala, pertsona aberatsenen %10ak bere ondare higiezinak %34,3tik %42ra handitu du. Aldiz, bost dezila pobreenek (biztanleriaren %50 pobreenak) por-tzentai hori %18tik %12,5era murriztu dute. Datu hauek etxebizitza gutxi dagoela edo migra-tutako pertsonen etxebizitzak bereganatzen dituztela dioten diskurtsoak gezurtatzen dituzte. Errealitatea da aberatsak direla etxeak bereganatzen ari direnak.

Aberastasun garbiaren eta osagaien banaketa etxeetako aberastasun garbiaren mailaren arabera



Iturria: Espainiako Bankua

Etxebizitza HEHn gizarte bazterketa eragiten duen faktore nagusietako batean bihurtu da. EAEn bigarren dimentsioa da bazterketan eragin handiena duena, eta Nafarroan lehenengoa. Izan ere, txosten honetan etxebizitzaz hitz egiten bada ere, pertsona askorentzat arazoa alternatiba habi-tazional batera sartzea da, etxebizitza eskuratzea ezinezkoa baita.

Nafarroan, etxebizitzarekin lotutako bazterketak biztanleriaren %22ri eragiten dio, 2018ko %16,5arekin alderatuta nabarmen okerrera eginez. EAEn, egoera honek pertsonen %16,9ri eragiten dio, etxebizitzan gastu gehiegizkoa izanik arazo nagusia. Datu horien atzean etxebizitza-ren prezioen igoera dago, soldaten bilakaeraren gainetik, eta jabetza erregimenen prekarietatea, bereziki alokairuan bizi diren pertsonen kasuan.

5 Kontu birbanatzaileen estatistika. Espainiako Bankua (2026)

Etxebizitzaren prezioek gora egiten jarraitu dute, eta horrek ordainketei aurre egitea arazo bihurtu du biztanleriaren zati handi batentzat. FOESSAren arabera, HEHko biztanleriaren %11 pobrezia atalasearen azpitik kokatzen da etxebizitza eta etxebizitzaren gastuak ordaindu ondoren. 320.000 pertsonaz ari gara, etxebizitzak pobrezia egoeran jartzen dituenak.

Etxebizitza erregimena funtsezkoa da. EAEn, etxebizitza jabetzan duten pertsonen artean pobrezia arriskua %5era mugatzen da, alokairuan bizi direnen artean, aldiz, %30era igotzen da. Izan ere, alokairuan bizi diren pertsonen %52 bazterketa egoeran daude. Nafarroan, portzentajea %46koa da. Datu hauek jabeen eta alokairuan bizi direnen arteko arrakala argia erakusten dute, eta etorkizunean areagotzea aurreikusten da, bereziki emakumeak, pertsona migratuak eta gazteak pobrezia arriskuan jarritz.

Etxebizitzaren arazoak ez dira hileko alokairua edo hipoteka ordaintzera mugatzen. Beste faktore batzuk ere badaude pobreziarekin lotura zuzena dutenak: EAEn, hamar pertsonatik bat etxebizitza desagokian bizi da (oinarrizko horniduren falta, higiene baldintza txarrak, tamaina eskasa edo pilaketa). Nafarroan, proportzioa hamarretik 1,2koa da. Beste elementu garrantzitsu bat pilaketa da: Nafarroan biztanleriaren %4 larritasun handiko pilaketa egoeran bizi da, hau da, 15 metro koadro baino gutxiago pertsonako.

Etxebizitza ez seguruen kasuan —bizilekua epe labur edo ertainean mantendu ahal izango den zalantza dagoenean edo tratu txarrak jasotzen diren etxebizitzetan—, 80.000 pertsona daude HEHn.

Etxebizitzaren inguruko egoerarik latzena etxerik gabeko pertsonena da. Eustaten arabera⁶, EAEn etxerik gabeko pertsonentzako arreta zentroek egunero batez beste 4.230 pertsona heldu artatu zituzten, 2022arekin alderatuta %24 gehiago. Horietatik 830 “kaleko egoeran” zeuden.

Cáritasen arabera, 2025eko urtariletik irailera bitartean, 1.216 etxerik gabeko pertsonari lagundu zien, gehienak gizon migratu gazteak ziren (%90 gizonak eta %93 jatorri atzeritarrekoak), eta %78,8k ez zuen inolako ostatu egonkorrik arreta jaso zutenean.

Nafarroan, azken datuek⁷ erakusten dute 2022an 600 pertsona baino gehiago zeudela etxerik gabe, 2012arekin alderatuta %82ko igoerarekin. Horietatik erdiak hiru urte zeramatzaten egoera horretan.

Gogoratu behar da etxerik gabeko pertsonen kopuru zehatza ezagutzea zaila dela, zenbaketa puntualetan oinarritzen baita. Litekeena da benetako kopurua handiagoa izatea.

3.5. Diru sarrera txikienak dituzten pertsonen erosketa saskiko aldaketak

Etxebizitza ordaintzea gastu nagusia bada ere, oinarrizko beharrak asetzeko saihestezinak diren beste gastu batzuk ere badaude, hala nola, elikadura. Espainiako Estatu mailan, etxebizitzak ordaintzea gastuen %40 baino gehiago hartzen du⁸. Elikadurak eta edariei %18,7 hartzen dute. Hurrengo mailan funtsezko gastu instrumentalak daude, hala nola, osasuna, garraioa, hezkuntza zerbitzuak, informazioa eta komunikazioak, eta azken mailan berriz, aisialdia eta bizitza soziala kokatzen dira.


6 Etxerik gabeko pertsonen baliabideen estatistika. Eustat.

7 Etxerik gabeko pertsonen estatistika. Nafarroako Gobernua.

8 Pobreziako edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden familien erosketa-saskia. EAPN (2025)

Aurreko Egoeraren Azterketan adierazi genuenez⁹, elikagaien prezioek %30 baino gehiago egin dute gora azken urteetan, soldaten igoeraren gainetik nabarmen. Egoera horrek elementu horri dagokionez 15,4 puntuko erosahaltenaren galera eragin du. Hau da, soldata berarekin gero eta elikagai eta edari gutxiago eros ditzakegu.

Erosahaltenaren galera KPIaren, IPVaren eta elikagaien arabera (2019ko 4. hiruhilekoa = 100)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egin, ETCL eta EIneren datuekin

Egoera honek pertsona askok beren dieta aldatzera behartu ditu: haragi eta arrain gutxiago jatera eta elikagai prozesatu gehiago erostera, eta horrek etorkizunean osasun arazo handiagoak ekar ditzake.

4. DESBERDINTASUNA ETA ZERBITZU PUBLIKOETARAKO SARBIDEA

Diagnosian ikusi dugun bezala, pobrezia eta gizarte bazterketaren arrazoi anitzek eragiten dute, hilabete bukaerara ez iristea baino haratago doa. Bazterkeriak osasunean, hezkuntzan, zaintzetan eta pertsona horiek zerbitzu publiko zein pribatuetara heltzeko duten aukeran ere eragiten du. Atal honetan, gizarte bazterketa arlo horiekin guztiekin aztertzen da.

4.1. Pertsona pobreak gehiago gaixotzen dira, osasun arreta okerragoa dute eta arinago hiltzen dira

Osasuna bermatua izateko aukeran dagoen arrakala soziala hainbat puntutan nabaritu daiteke. Bizi itxaropena, oso desberdina da errentaren, jatorriaren edo bizilekuaren arabera. Hori bizi kalitatea zehazten duten beste adierazle batzuekin dago lotua (elikadura osasungarrirako aukera, osasun arreta, lanaren gogortasuna, etxebizitza izateko aukera...). Hainbat ikerketek horrela baieztatzen dute, besteak beste, EHUko OPIK Gizarte Osasunaren Determinatzaileak eta Aldaketa Demografikoa Ikerketa Taldeak egindakoek edo Nafarroako Gizarte Errealitatearen Behatokiak egindakoek.

Nafarroaren kasuan, Nafarroako Gizarte Errealitatearen Behatokiaren “Osasunaren determinatzaile sozialak Nafarroan” izeneko ikerketak (2023an argitaratua) osasunean gizarte desberdintasunek izan ditzaketen ondorioak erakusten ditu. Beste hainbat faktoreen artean, ikerketak diru sarreren faltak osasunean duen eragina agerian uzten du. Diru sarrera txikiak dituztenek (urtean 18.000 euro baino gutxiago) diabetes gehiago dute (%45,4 gehiago), obesitatea (%29,7 gehiago), antsietatea (%13,2 gehiago) eta depresioa (%35,6 gehiago). Are gehiago, larrialdi zerbitzuetara bisita gehiago egiten dituzte eta larrialdiko ospitaleratze gehiago dituzte. Beraz, baliabide gutxiago dituzten pertsonen osasun okerragoa dute.

Foessa txostenaren arabera, EAEko biztanleria orokorraren %10,8k gizarte bazterkeriarekin lotutako osasun arazoak ditu (adibidez, zerbitzuak lortzeko zailtasunak edo botikak eta tratamenduak ordaintzeko arazoak), eta botikak erosteko edo tratamenduak jarraitzeko zailtasun ekonomikoek 157.000 pertsona ingururi eragiten diete. Horri gehitu behar zaio osasun arreta bera ere okerragoa dela. Nafarroan, osasun arloko bazterkeria mailak biztanleriaren %15,6ri eragiten dio, gaika garratzitsuenetari bat izanik. Zehazki, gaixotasun larriak edo kronikoak dituzten pertsonen %9,9k ez zuen beharrezko osasun arreta jaso azken urtean, %14k zailtasunak ditu hortz tratamenduak ordaintzeko, %11k betaurrekoak edo audifonoak eskuratzeko, eta %7k terapia psikologikorako hitzordua lortzeko; 2018an erregistratutakoa baino hirukoitza.

OPIKek egindako ikerketek eta artikuluek berresten dute maila sozioekonomikoak osasun zerbitzuen erabileran eragina duela. Hezkuntza maila eta baliabide ekonomiko handiagoak dituzten pertsonen osasun estaldura bikoitza dute (publikoa eta pribatua), eta, beraz, aukera dute osasun pribatura jotzeko, publikoa motela denean edo lehen arretaren kalitatea okerrera egiten duenean.

Funtsezko elementuetako bat itxaron beharreko denbora da. Itxaron zerrendak oso luzeak dira bai Osakidetzan, bai Osasunbidean. Osakidetzan, batez besteko itxaron zerrenda kirurgikoa 54 egunekoa da (2025eko azaroaren 29ko datuak), eta Osasunbidean, berriz, 97 egunekoa (2025eko abenduko datuak). Hala ere, itxaron zerrenden datuak ez dute pazienteek benetan itxaron behar duten denbora adierazten, zerrenda “erregistroan sartzen den egunetik” hasten baita zenbatzen, eta ez arreta medikoa eskatzen denetik.

Horrek errenta handiagoa duten pertsonen osasun pribatura joatea eragiten du. Osasun Ministerioaren Espainiako osasun-sisteman (SNS) osasun pribatuaren ebaluazioari buruzko 2025eko Txostenaren arabera, osasun aseguru pribatuak dituzten pertsonen kopurua %40 handitu da EAEn eta %108 Nafarroan 2018tik 2024ra bitartean.

Azkenik, INEren biztanleria datuen arabera, bizi-itxaropenean 6 urte arteko aldea dago gune aberatsenen eta pobreenen artean.

4.2. Zaintza profesionalak ez dira errenta baxuentzat

Pertsonak izaki dependienteak gara, eta guztiok zaintza jasotzen dugu bizitzako fase batean edo askotan. Hala ere, zaintza profesionalen eremua ez dago pertsona guztien eskura.

Adibide argia dira zahar egoitzak eta eguneko zentroak. Gehienak pribatizatuta edo merkantilizatuta daude, enpresa pribatuen edo funts putreen esku, eta horiek etekin ekonomikoa lehenesten dute, pertsonen zaintzaren gainetik.

Egoitza horietara modu pribatuan sar daiteke, baina erabiltzaileek ordaindu beharreko prezioak askoz handiagoak dira gizartearen gehiago zabalaren pentsioak eta diru sarrerak baino.

Hitzartutako egoitzen eta eguneko zentroen kasuan, askotan prezioaren zati bat erabiltzailearen

gain erortzen da oraindik ere, eta horrek zerbitzu publiko horretatik kanpo uzten ditu ordainketari aurre egin ezin dioten pertsona guztiak. Gainera, mendekotasun mailaren bat aitortzen den kasuetan, aitortza prozedura oso luzea dela kontutan izan behar da: kasu askotan 6 hilabete baino gehiago behar izaten dira ebazpena emateko, eta bitarte horretan erabiltzaileak bere gain hartu behar du egoitza edo eguneko zentroaren prezio osoa. Mendekotasuna aitortzen denean ere, atzeraeraginezko ordainketak baliteke epe osoa ez estaltzea.

Horrek guztiak errenta baxuenak dituzten pertsonen zaintza profesionaletara sartzeko zailtasun handiagoak izatea edo zuzenean kanpoan geratzea eragiten du. Nafarroan, kalkulatzen da mendeko adinekoak dituzten familien heren batek baino gehiagok egoitza plaza egokietara sartzeko zailtasunak dituela, kostuagatik, eskaintza mugatuagatik edo sarbide baldintzengatik.

Zailtasun handiago horrek ageriko genero diskriminazioa ere eragiten du: zerbitzu publiko bat ordaindu ezin duten pertsonen zaintza emakumeen gain erortzen da, lan prekaritatea areagotuz eta etorkizunean, zaintzaile izan den emakumea bera nork eta nola zainduko duen ez delako bermatzen.

4.3. Bazterketaren eragina hezkuntzan

Hezkuntzaren atalak bazterketa sozial orokorrean pisu handiena duena ez den arren, etxebizitzak edo partehartze politikoak askoz eragin handiagoa dutelako, biztanleriaren zati garrantzitsu bati eragiten dio.

EAEen, hezkuntza bazterketak biztanleriaren %6,2ri eragiten dio. Portzentai hori zertxobait handitu da 2018tik, orduan %5,1 baitzen.

Nafarroan, intzidentzia handiagoa da, biztanleriaren %8,4ri eragiten baitio. Hala ere, EAEarekin alderatuta, Nafarroan hobekuntza nabarmena izan da: 2018tik sei puntu portzentual murriztu da, orduan arazoak biztanleriaren %14,4ri eragiten baitzion.

Hezkuntza bazterkeria hiru adierazle nagusiren bidez ebaluatzen da: haur eskolaratzearen falta (3 eta 15 urte bitartean), EAEen etheen %0,4ri baino ez diona eragiten, eta Nafarroan %2,2ri. Helduen (15-65 urte) kualifikazio baxua, hau da, etxeko heldu guztiek eskola graduarik edo DBHrik ez duten etxeak, EAEen %4,7ri eragiten diena eta Nafarroan %7ri. Eta, azkenik, 65 urtetik gorako pertsonen analfabetismoa, hurrenez hurren %2,9ri eta %2,1i eragiten diena.

Hezkuntza zailtasunak funtsezko faktorea dira pobrezia belaunaldiz belaunaldi transmititzeko. Gainera, etxerik pobreenek eskola porrot eta uzte tasa handiagoak dituzte, eta horrek familiaren hezkuntza maila eta egoera kronifikatzera darama.

Ez da kasualitatea erreproduzio hori gunen jakin batzuetan gertatzea, bereziki hiriburu eta kanpoaldeetan. Bazterketa sozialean dauden pertsonak eremu zehatzetan bizi dira, zerbitzu publiko okerragoekin, etxebizitza kaskarragoekin eta bizibaldintza txarragoekin, integrazio osoa duten pertsonekin alderatuta.

5. NAHIKOAK AL DIRA PRESTAZIO SOZIALAK POBREZIATIK IRTETZEKO?

Prestazio sozialak funtsezko tresna dira justizia soziala eta berdintasuna bermatzeko. Diru sarre-ra minimoak bermatzen dizkiete, egoera desberdinengatik, bizitza duina garatzeko zailtasunak dituzten pertsonen. Horregatik, ezinbestekoa da prestazio sistema hobetzea eta handitzea, gizarte kohesio hobe baten mesedetan.

EAEn eta Nafarroan bi prestazio propio ditugu: Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eta Errenta Bermatua (EB). Azken urteetan Gutxieneko Diru sarrera Bizia (GDB) gehitu da, nahiz eta Hego Euskal Herrian eragin txikikoa izan. 2008ko krisiaren ondoren eta austeritate politiken testuinguruan, bai DSBEk, bai EBk murrizketak jasan zituzten zenbatekoetan eta prestazio horiek jasotzeko bete beharreko baldintzei zegokienez. ELAn azken urteetan murrizketa horien inguruko balorazio eta kritika egin izan dugu; beraz, txosten honetan ez dugu arlo honetako politiken atzera begirako azterketarik egingo. Bi prestazioak indartzeko beharra agerikoa da, beraz.

5.1. Zenbatekoen murrizketak

2008ko krisiaren ondoren hainbat neurri aplikatu ziren prestazio sozialak murrizteko. Bai EAEn, bai Nafarroan, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) erreferentzia kendu zen, legean ezarritakoa urratuz. Gainera, azken urteetan LGS %60 baino gehiago handitu dela kontuan izanik murrizketa horiek oraindik gehiago areagotu egin dira.

EAEn, 2012an utzi zitzaion 2008ko Legean ezarritakoa betetzeari; lege horren arabera, pertsona bakarerrako zenbatekoa LGSren %88 zen, eta pentsiodunen kasuan %100. Duela 14 urtetik hona, prestazio horiek kalkulatzeko oinarritzko zenbatekoa Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu proiektuan ezartzen da, horrela 2026rako 583 eurokoa izango delarik. Oinarria hori izanik, zenbatekoak 2008ko legeak ezartzen zituenetatik oso behera geratzen dira.

DSBEren zenbatekoak 2026an eta 2008ko legearen arabera (eurotan)

	2026	2008ko legea
Pertsona 1	874,5	1.254
Pentsiodun 1	1.107	1.424,5

Iturria: Lanbide

Nafarroan, Errenta Bermatua diseinatzean, norabide bereko murrizketa larria egin zen, urteekin areagotzen joan dena. Gizarteratzeko Errenta aurrekoa indargabetu zenean, prestazioaren zenbatekoa LGS hartuta kalkulatu zen; hau da, erreferentzia LGS zen, eta harekin batera handitzen zen.

Errenta Bermatuarekin aldiz, erreferentzia hori ezabatu zen, beraz, 2016an LGS hilean 655,2 eurokoa bazen ere, prestazioa kalkulatzeko oinarritzko zenbatekoa 600 eurotan ezarri zen murrizketa argia izanik.

Gaur egun, Errenta Bermatuaren eguneraketa Nafarroako KPlaren igoeraren eta Nafarroako batez besteko soldaten igoeraren artean handiena den balioa kontuan hartuta egiten da. 2016an egindako murrizketa bikoitzaren ondorioz (LGSren erreferentzia kentzea eta zenbatekoa murriztea) urteekin galera biderkatu da.

Horrela, 2025ean Errenta Bermatua kalkulatzeko oinarrizko zenbatekoa 790,28 eurokoa izan da, LGS 1.184 eurokoa zen bitartean. Hau da, LGSren erreferentzia berreskuratzeko, zenbatekoa %49,8 handitu beharko litzateke.

Zenbatekoen arteko aldea eurotan (2016-2025)

	2016	2025
Errenta Bermatua	600	790,28
LGS	655,2	1.184

Iturria: Nafarroako Gobernua

Horrela Nafarroan pobrezia eta desberdintasuna handitzen ari diren bitartean, Errenta Bermatua-
ren babespean dauden pertsonen kopurua gutxitzen ari da. Gainera, prestazioa jasotzen dutenek
gero eta erosteko ahalmen txikiagoa dute, eta, ondorioz, haien egoera gero eta prekarioagoa da.

Hau da, ez zaie behar duten pertsona guztiei arreta ematen, eta arreta jasotzen dutenei gero eta
egoera okerragoan uzten zaie.

5.2. Prestazio sozialak EAEan

2025. urtearen amaieran¹⁰, ia 57.500 pertsonak jasotzen zuten DBE, eta horietatik %57 emaku-
meak ziren. Adinari dagokionez, 9.500 gazte inguruk jasotzen dute prestazio hori (16 eta 35 urte
bitartekoak), eta 11.700 pertsona inguru 65 urtetik gorakoak dira; horietatik %67 emakumeak
dira. Egoera ekonomikoa aldekoa izan arren, onuradunen kopurua nahiko egonkor mantendu da
azken urteotan, eta are handitu ere. DBEren azken erreformek ez dute onuradunen kopurua han-
ditzean eraginik izan, nahiz eta kolektibo batzuek sarbide errazagoa duten (genero-indarkeriaren
biktima diren emakumeek edo errefuxiatuek) onuradunen kopurua egonkor mantentzen dira egi-
turazko arazo desberdinen ondorioz, hala nola, lan prekarioa edo pentsio sistema eskasa. BGDS
2022an integratu zenetik, jasotzen duten pertsonen kopurua ere handitzen joan da.

DBE eta Bizitzeko Gutxieneko Diru sarrera jasotzen duten pertsonen bilakaera

Urtea	DSBE titullarrak	BGDS titullarrak	Biak	Soilik DSBE	Soilik BGDS	Guztira
2018	55.605	s.d.	s.d.	s.d.	s.d.	s.d.
2019	52.347	s.d.	s.d.	s.d.	s.d.	s.d.
2020	52.555	s.d.	s.d.	s.d.	s.d.	s.d.
2021	52.839	s.d.	s.d.	s.d.	s.d.	s.d.
2022	49.313	19.843	9.901	39.412	9.942	59.255
2023	55.487	24.485	12.297	43.190	12.188	67.675
2024	58.234	28.753	14.570	43.664	14.183	72.417
2025	57.401	s.d.	s.d.	s.d.	s.d.	s.d.


Iturria: Foessa txostena, Lanbide eta INSS

2024ko datu metatuak aztertuta¹¹ —ia 71.000 pertsona prestazio honen onuradun izan ziren (52.622 oinarritzko errentaren hartzaileak eta 17.879 lan sarreren osagarriaren hartzaileak)—, hartzaileen tipologiaren argazki bat egin daiteke.

Eustaten datuek honako hau erakusten dute:

DSBE jasotzen duten pertsonen profila, enpleguan duten posizioaren arabera

p. 17.



Iturria: Lanbide

Nazionalitateari dagokionez, eskuragarri dagoen azken datuek (2023) onuradunen %66k espainiar nazionalitatea zutela eta %34k atzerritarrak zirela zioten.

Arazoak egiturazkoak direnaren adierazle argia da DBEn iraupena. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, pertsona askok urte luzez jasotzen dute prestazioa.

DSBE jasotzen dutenak, jasotzen daramaten denboraren arabera

GUZTIRA			
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira	70.504	30.261	40.243
< 1 urte	10.526	4.672	5.854
1-3 urte	19.779	8.594	11.185
3-5 urte	14.797	6.318	8.479
6-10 urte	12.036	5.517	6.519
> 10 urte	13.366	5.160	8.206

Iturria: Lanbide

11 Eustat

Datuek erakusten dutenaren arabera, eta nahiz eta pobrezia murrizteko beharrezko neurriak izan, jakina da premia egoeran dauden pertsona guztiek ez dutela prestazioetara jotzen; oztopo administratiboengatik, informazio eta ezagutza faltagatik, edo gizartean estigmatizatuta sentitzeagatik, lotsagatik.

2022ko datuen arabera (2024ko datuak argitaratzeke daude oraindik), Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestak erakusten du DSBEk pobrezia errealaren arriskuan dagoen biztanleriaren %75,5era iristen dela; kolektibo horrek EAEko biztanleria osoaren %5,6 ordezkatzen du. Talde horren barruan, %60k arrisku egoeratik ateratzea lortzen du prestazioak jasotzeko; %40k, berriz, pobrezia egoeran jarraitzen du, nahiz eta intentsitate txikiagoan izan. Baliokidetasun terminoetan, pobrezia errealaren arriskuan dagoen pertsona guztien %45ek pobrezia gainditzen du laguntzei esker; %24k nahiz eta jaso pobrezia egoeran jarraitzen du; eta %24,5ek ez du prestazioetara jotzen, eta, beraz, egoera berean jarraitzen du.

5.3. Prestazio sozialak Nafarroan

2024an, Nafarroan 36.324 pertsona izan ziren Errenta Bermatuaren onuradun. Hau da, prestazioaren titularrak ez ezik, familia unitateko pertsona guztiak kontuan hartuta. Azpimarratzekoa da onuradun guztien artean erdia baino gehiago emakumeak direla (%53,4), hirutik bat 18 urtetik beherakoa dela (%35,8) eta gehienek espainiar nazionalitatea dutela (%54,8).

Datuen arabera eta estaldura mailari dagokionez, Nafarroako biztanleriaren %5,35 Errenta Bermatuaren onuraduna da; emakume guztien %5,67 eta gizonen %5,05. Nabarmena da, hamar adingabeetatik bat baino gehiago (%10,87) Errenta Bermatuaren onuraduna dela, eta Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten pertsonak %22,25 suposatzen dutela.

Bilakaerak erakusten du Errenta Bermatuarekin babestutako pertsonen kopurua handitu egin dela. 2016tik (aurreko Gizarteratze Errentarekin) 2017ra (egungo Errenta Bermatuarekin) onuradunen kopurua zein estaldura portzentaia handitu ziren.

Hala ere, azpimarratu behar da 2024an onuradunen kopurua 2018tik txikiena izan dela, eta estaldura portzentaia 2017tik, hau da, Errenta Bermatua ezarri zenetik, txikiena. Errenta Bermatuaren estalduraren bilakaera honek pobrezia handitzen ari dela erakusten duten datuekin talka egiten du.

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Pertsona onuradunak	5.593	7.242	13.974	18.418	20.591	19.870	23.899	26.800	29.068
% estaldura	0,92	1,17	2,22	2,89	3,21	3,08	3,71	4,18	4,54
	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Pertsona onuradunak	33.065	35.947	37.319	37.005	39.999	42.076	39.147	36.992	36.324
% estaldura	5.16	5.59	5.76	5.66	6.06	6.36	5.89	5.5	5.35

6. ONDORIOAK

6.1. Aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da

Aberastasuna hazten ari bada ere, modu azkarrean gutxiengo baten eskuetan pilatzen ari da. Mundu mailan, biztanleriaren %0,001ak (60.000 pertsona baino gutxiago) mundu osoaren erdi pobreena baino hiru aldiz aberastasun gehiago kontrolatzen du, eta diru sarrera handieneko %10ak gainerako %90 baino gehiago irabazten du. 2020tik, milimiliodunen ondarea %81 gehitu da, 2025 bakarrik kontuan hartuta %16 igo da.

Hego Euskal Herrian, dinamika hori BPGaren banaketan islatzen da: lan errentek 2,5 puntu galdu dute eta enpresen ustiapeneko marjin gordina BPGaren 4,8 puntu igo dira. Nahiz eta ekonomia hazi eta biztanleko BPG Estatuko altuenetako bat izan, langile klaseak ez da hazkunde horretatik bere partea jaso.

Nahiz eta EAEn eta Nafarroan ongizate maila Estatuko batez bestekoaren gainetik egon, datuek pobrezia eta bazterkeria egiturazkoak direla erakusten dute; are gehiago, egoera horiek konplexuagoak bihurtzen ari dira eta sakontzen.

6.2. Pobreziaren hazkundera eta kronifikatzea

Hezkuntzaren atalak bazterkeria sozial orokorrean pisu handiena duena ez den arren, etxebizitzak edo partehartze politikoak askoz eragin handiagoa dutelako, biztanleriaren zati garrantzitsu bati eragiten dio. Nafarroan, pobrezia larria 2018an %2,6koa bazen 2024an %7,9ra pasatu da, pobrezia handitu eta kronifikatu dela argi erakutsiz.

Azken urteetan HEHn handitu dena integrazio prekarioa da. EAEko biztanleriaren %34,7 eta Nafarroako %36,2 integrazio prekarioan bizi dira. Hau da, pertsona horiek ez daude bazterketa egoeran, baina lan prekario eta soldata baxuak dituzte, eta ondorioz, ezusteko gastu batek bazterketa sozial egoeran utz diezaike.

6.3. Pobrezia eta bazterketa sozialaren aurpegiak: pertsona migratuak, emakumeak eta gazteak

Pobrezia oso desorekatuta dago gizartean. Pertsona migratuak dira batez ere baztertuak: EAEn %40,7 dira (tokikoekiko bost aldiz gehiago) eta %40,2 Nafarroan, EAEko %64,2a eta Nafarroako %64,5 suposatuz.

Gazteek pobrezia eta bazterketa sozial maila altua dute: EAEn 18 urtetik beherakoen %19,9ra iristen da eta Nafarroan %23,4ra, 65 urtetik gorakoen %5,5 eta %5,4arekin alderatuta.

Generoa ere erabakigarria da: etxeko burua emakumezkoak direnean bazterketa tasak handiagoak dira (%15,4 EAEn eta %18 Nafarroan). Emakumeek zaintza lanen pisu handiagoa dute: seme-alaben zaintzaren %87 eta beste senideen zaintzaren %72, eta honek prekariedade ekonomikoa handitzen laguntzen du.

Emakume pentsiodun askok pobrezia larriko muga azpitik daude (%21,3 Nafarroako alarguntasun pentsioetan eta %16,7 EAEan).

6.4. Pobrezia hilabete bukaerara ez iristea baino gehiago da: etxebizitza, osasuna, zaintzak, hezkuntza...

Pobreziak dimentsio anitz ditu, eta etxebizitza faktore nagusietako bat da. HEHn, biztanleriaren %11 (320.000 pertsona inguru) pobreziaren muga azpitik dago behin etxebizitzari loturiko gastua ordaindu ondoren. Alokairuan bizi diren pertsonen kasuan pobrezia arriskua askoz handiagoa da: EAEan %52 eta Nafarroan %46 bazterketa egoeran daude.

Pobreziak zuzen eragiten du osasunean: Nafarroan, biztanleriaren %15,6k bazterkeria jasaten du arlo honetan, tratamenduak ordaintzeko zailtasun egoerek (psikoterapia %14, betaurrekoak edo entzumen gailuak %11, arreta medikoa %9,9) eta gaixotasun kronikok eta estres egoerek gora egin dute.

Famili askok, batez ere menpekotasun egoeran senideren bat dituztenek, 3tik 1ek baino gehiagok, zaintza profesionala, erresidentzian plaza lortzeko eta sartzeko zailtasunak dituzte, kostua, plaza mugatuak edo sarbide baldintzak direla medio. Ondorioz, zaintza lana etxean, familian egiten da, eta batez ere emakumeen kontura.

Pobreziak hezkuntzan ere eragiten du, porrota eta eskolaz kanpo gelditzeko arriskua handituz. Hezkuntza muga hauek hezkuntza pobrezia belaunaldiz belaunaldi egonkortzea eragiten dute, egiturazko desberdintasunak finkatuz.

6.5. DSBE eta Errenta Bermatua ez dira nahikoak

Prestazio sozialak funtsezko tresna dira diru sarrera minimoak bermatzeko. EAEan, DSBE pobrezia arriskuan dauden biztanleriaren %75,5ra iristen da, baina bakarrik onuradunen %45a pobreziatik irtetzen da, %24k nahiz eta jaso oraindik pobrea izaten jarraitzen du, eta beste %24,5k ez du laguntzarik jasotzen.

Nafarroan, pobrezia gora doa eta onuradun kopurua murrizten ari dela ikusita, laguntza hau ez dela behar duten pertsona guztietara iristen adierazten du.

Kopuruak LGSaren azpitik daude: 2026rako DSBEren oinarria 583 euro izango dira. DSBE 2012tik kopuru murrizketak jasan ditu. Errenta Bermatuaren oinarrizko kopurua 2025ean 790,28 euro izan ziren, LGSa 1.184 euro zirenean. Hori horrela, Errenta Bermatuak LGSarekiko %50eko murrizketa metatua dakar. %50eko eros-ahalmena galtzea PSNk egindako murrizketan ondorioa da.

7. GIZARTEAREN KOHESIORAKO ELEMENTUAK. ELAREN PROPOSAMENAK.

ELAn urte asko daramatzagu aberastasunaren banaketa justuago bat aldarrikatzen. Gizarte kohesionatuago bat lortzeko helburuarekin. Txostenak argi uzten du pobreak eta bazterkeria sozialak aurpegia dutela, faktore askok eragina dutela hortan eta horietako asko egiturazkoak direla. ELAk arlo ezberdinetan neurriak proposatzen ditu deskribatutako errealitateei aurre egiteko. Beharrezkoa da beraz:

HEHren Lanbidearteko Gutxieneko Soldata propioa

Nahiz eta pobrezia desagertarazteko neurri bakarra ez izan, gizarte kohesiorako tresna bada, batez ere soldata baxuagoak dituzten langile eta lan baldintza prekarioak dituzten langileei eragiten diena, gehienetan migratuak, emakumeak eta gazteak izaten direnak. Desberdintasuna murrizteko politiketan funtsezko tresna da. Horrela ondoriozta daiteke, besteak beste, Javier Arribas Cámara, Luis Cárdenas eta Adrián Rialen "The effects of the minimum wage on inequality: A literature review" argitalpenetik.

Lanbidearteko gutxieneko soldata aberastasuna banatzeko eta gizarte kohesioa sustatzeko mekanismoa da; pobrezia mugariaren azpitik bizi diren pertsona kopurua murriztu eta legeak ezarritako lan baldintzak baino hobeak dituzten sektoreetan soldataren negoziazioa sustatzen du. Horregatik, gure herriko langile klasearen beharretara egokitutako soldata minimoa aldarrikatzearen beharra.

Lanbidearteko gutxieneko soldata handitzeak lanean dauden pertsona guztiei mesede egingo lieke. Gutxieneko soldata hobetzen denean, lan prekarietate handiagoa duten pertsonen ordainsaria zuzenean igotzen da (batez ere emakumeen, migratuen, desgaitasun funtzionala dutenen eta gazteen kasuan); Hegoaldean, 300.000 pertsonen onura aterako lukete horrela. Baina, gainera, langile guztiek presio neurri bezala erabil dezakete ere, soldatek gora egiteko.

Horregatik eskatzen dugu:

- CONFEBASKi eta CENi, sektore arteko hitzarmenak sinatzean 1.500€-ko gutxieneko soldata ezartzea.
- Bai Eusko Legebiltzarrean, bai Madrilen gutxieneko soldata hemen ezartzeko beharrezko ekimenak garatzea eta indar politiko euskaldunek aldarrikapen hauek babestea.
- Egun garatzen ari den estatus politikoaren eztabaidan gutxieneko soldataren inguruan erabakitze gaitasuna bermatzea.
- Aberastasunaren banaketa eta soldata hobetzeko beharrari buruzko eztabaida lehenestea.

Honekin batera, kalitatezko enplegua sustatu behar da, lan-prekarietatea borrokatu, kontratu egonkorrak eta bizitza duina bermatzen duten soldata egokiak eskainiz.

Prestazio sozialen murrizketak atzera botatzea eta berriro LGSari lotzea

Aurreko aldarrikapenekin batera, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta Errenta Bermatuaren LGSari berriro lotzea beharrezkoa da, bere kopurua modu esanguratsuan handituz.

Neurri berean, azken urteetan ezarritako murrizketak atzera bota behar dira, kolektibo batzuek prestazio hauek lortzea zailtzen dutenak, migratzaileak kriminalizatuz edo estigmatizatuz.

Ezinbestekoa da zerbitzu hauen erabilera handitzea, pertsona guztiek prestazio sistemaren eza-gutza izan dezaten eta horretaz balia daitezen.

Etxebizitza politiketarako inbertsioa handitzea

Etxebizitza politiketara bideratzen den gastu publikoaren portzentaia BPGaren %2ra igo behar da, bai EAEn bai Nafarroan. Horrela, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatu behar da, behar duen pertsona guztiei alokairuzko etxebizitza publikoa eskainiz.

Tentsio-eremuei dagokionez, HEH osoa tentsio-eremu gisa definitzea beharrezkoa da, jabe handien irizpidea ezabatzearekin eta prezio indize maximoak ezartzearekin batera (hemen erabakita eta ez estatuan). Jabetzari dagokionez, tentsiodun eremuetan erositako etxebizitzak bertan bizitzeko izan behar dira, bestelako erabilpenik gabe.

Pentsio minimoak osatzea, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aldarrikatzen duen bezala

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako HELren aldarrikapenak kontutan hartu behar dira, gutxieneko pentsioak gutxieneko soldatarekin berdintzeko osagarria sortuz. Horrela batez ere emakumeek dituzten miseriazko pentsioak desagertaraziko lirateke.

Zerbitzu publikoak indartu eta zaintza sistema doako, unibertsal eta kalitatezkoa

Zerbitzu publikoak aberastasuna banatzeko ezinbestekoa tresna dira. Zerbitzu publikoak funtsezkoak dira pertsona guztien oinarritzko eskubideak gauzatzeko, batez ere sisteman sartzea ezinezkoa izango luketen pertsonentzat. Osasun, hezkuntza, etxebizitza edo gizarte eskubideetara sarbidea ez da pertsonaren diru sarreraren menpe egon behar.

Horregatik, osasun, hezkuntza eta zaintzetan egiten den inbertsio publikoa Europar Batasuneko batez besteko mailarekin parekatu behar dira.

Bidezkoa eta justua den erreforma fiskala

Aurreko aldarrikapenak gauzatzeko, progresiboa den erreforma fiskala beharrezkoa da¹². Bai fiskalitatea, bai aberastasuna banatzea gizarte kohesionatu eta berdinean izateko funtsezkoak dira. Fiskalitatearen bidez aberastasuna modu justuago batean banatzeko aukera dago: alde batetik, gehiago dutenek gehiago ordain dezaten, eta bestetik, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko, soldata baxuenak dituztenek gehiago erabil ditzaten.

Fiskalitate politikak zenbat diru bilduko den eta nola zehazten dute. EAE eta Nafarroako fiskalitate eredua, europar ingurukoarekin alderatuta, diru gutxi biltzean, langile klasearen kontura egitean, kapital errentei tratamendu berezia ematean eta lan errentatik at iruzurra onartzean datza.

Laburbilduz, fiskalitatea balio handiko tresna bada ere, bai EAE zein Nafarroan erabilera desegokia ematen zaio eta arrakala eta desberdintasunak handituz doaz.

